

G-9 Taldearen IX. Doktorego Jardunaldiak 2022ko maiatzak 18, 19 eta 20 Bilbo

Sarrera:

Unibertsitateen G-9 Taldea 1997an eratutako elkarte bat da eta dagokien autonomia erkidegoan bakarrak diren Espainiako unibertsitate publikoak dira bertako kide: Kantabriako Unibertsitatea, Gaztela-Mantxako Unibertsitatea, Extremadurako Unibertsitatea, Balear Uharteetako Unibertsitatea, Errioxako Unibertsitatea, Ovidoko Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Zaragozako Unibertsitatea.

Elkartearen xedea taldeko unibertsitate erakundeen arteko harremanak bultzatzea da, unibertsitate erkidego bakoitzeko irakaskuntza eta ikerketa jardueretan parte hartzea sustatzeko, besteak beste.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea acoge las **G-9 Taldearen IX. Doktorego Jardunaldien eta Dibulgazio Zientifikoaren IV. Jardunaldien** egoitza izango da. Topaketaren xedea izango dira G-9 elkartearen sortzeko helburuetan sakontzea eta doktore gradua nabarmentzea, gizartearen aurrean eta, bereziki, enpresa inguruan. Gainera, jardunaldi hauekin bidea erraztu nahi zaie doktoregaiei elkar ezagutzeko eta beren ikerketen berri zabaltzeko. Horrez gain, unibertsitateko ikerketa karreraren aukera profesionalak aurkeztu nahi zaizkie, eta doktoregaiek berrikuntzaren eragile gisa enpresentzat duten garrantzia nabarmendu nahi da.

Jardunaldien egoitza:

Jardunaldiak Bizkaia Aretoan (Abandoibarra etorbidea 3, 48009 Bilbo) eta Bilboko Ingeniaritza Eskolako Areto Nagusian (Rafael Moreno "Pitxitxi" kalea 2-3, 48013 Bilbo) egingo dituzte.

Ostatua:

Ilunion Bilbao hotelean izango da (Rodríguez Arias kalea 66, 48013 Bilbo).

Finantziak:

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak ordainduko ditu G-9ko unibertsitateetako doktoregaiei ostatua eta mantenua, baita kasuan kasuko sariak ere. Taldeko gainerako unibertsitateek ordainduko dituzte jardunaldietara beren ordezkari legez doazen doktoregaiei bidai gastuak, baita posterren inprimatzea ere.

Parte-hartzaileak:

Jardunaldietara G-9 taldeko unibertsitate bakoitzeko 10 doktoregai joango dira gehienez, bina bost ezagutza arloetako bakoitzetik: Arteak eta Giza Zientziak; Zientziak; Osasun Zientziak; Gizarte eta Lege Zientziak; eta Ingeniaritza eta Arkitektura.

G-9 taldeko unibertsitate batek ez badauka doktorego programarik arlo horietako batean edo gehiagotan, gainerako arloetan erabili ahal izango du emandako kupoa. Unibertsitate bakoitzean indarrean dagoen babes akademikoko matrikula duten doktoregaiak izango dira partehartzaileak.

Unibertsitate bakoitza arduratuko da hautagaiak hautatzeaz.

Programa:

Programak hainbat saio ditu.

Doktoregaiak beren ikerketaren berri emateko gainerako partehartzaileei eta gizarteari azalpen poster bat aurkeztuko dute gauzatzen ari diren tesiaren edukiekin.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa eta epeak:

Unibertsitateek doktoregai bakoitzeko **online izena emateko formulario bat** bete beharko dute, erantsiz aurkeztuko dituzten posterren kopia bat PDF formatuan. Unibertsitateei formulariorako esteka bidaliko zaie beren doktoregaien eskaera formalki bete dezaten.

Online formularioak bidaltzeko **epea** apirilaren 8an amaituko da.

Unibertsitate bakoitza arduratuko da doktoregaiak jardunaldietara eramango dituzten posterrak inprimatzeaz. Doktoregaiak, gainera, USB batean posterraren pdf bertsioa eramango dute jardunaldietan azaltzeko. Doktoregai bakoitzak ahoz azalduko die posterra gainerako doktoregai, gehienez 5 minutuz. Azalpenen ondoren, galderak egiteko tartea egongo da.

Posterrak:

Posterrak ulergarriak izan beharko dira beste ezagutza arloetako partehartzaileentzat eta epaimahaiko kideentzat. Honako ezaugarri hauek izango ditu:

1. Neurria: DIN A0 (841 x 1189 mm) eta diseinu bertikala.
2. Egitura:
 - IZENBURUA: Laburra eta ulergarria.
 - EGILEA(K): lana pertsona batek baino gehiagok egin badute, doktoregiaia zerrendako lehena izango da. Gero, gainerako egileen izenak ageriko dira dagokien filiazioarekin (saila eta unibertsitatea edo ikergunea).
 - Tutorearen eta tesiaren zuzendari(ar)en izenak.
 - LABURPENA: Lanaren laburpen txiki bat.
 - HELBURUAK: helburu orokorrak eta zehatzak, bereizik edo laburpen moduan.
 - IKERKETAREN GARAPENA: ikerketaren garapenaren etapa nagusiak.
 - EMAITZAK (lortutakoak eta/edo aurreikusitakoak)
 - ONDORIOAK
 - ERREFERENTZIA ESANGURATSUENAK

Posterra gauzatzeko gomendioak:

1. Ez eman informazio gehiegirik.
2. Erabili eskemak, grafikoak, figurak, argazkiak, etab.
3. Erabili letra handi samarra.

4. Erabili koloreak atalak bereizteko eta garrantzitsuena nabarmentzeko.

Sariak:

Epaimahaiarena:

- ezagutza arlo bakoitzeko poster onena (diploma eta 200 euro).
- Accesita, ezagutza arlo bakoitzean.

Doktoregaiena:

ezagutza arlo bakoitzeko poster onena (diploma eta 200 euro) eta accesita.

Epaimahaia:

Epaimahaiko kideak Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak izango dira.

Argibide gehiago:

Unibertsitateen G-9 taldea

Idazkaritza Nagusia

Arrosadiko Campusa

Iruñea

Helbide elektronikoa: grupo9@uni-g9.net

Webgunea: <http://www.uni-g9.net>

Twitter: @uni_g9